

# Etxetik hasi behar delako

Euskaltegian matrikulatzeko kanpaina abiarazi dute Buruntzaldeko udalek

**F**amiliak berebiziko garrantzia du hizkuntzaren transmisioan. Horretaz jabeturik, Buruntzaldeko udalek euskararen belaunez belauneko transmisioa indartzeko lanean ari dira. Argitaratu duten eskuorriaren lema adierazten duen bezala: "Etxetik hasi behar delako" egitasmoaren helburua euskararen familia bidezko transmisioan eragitea da.

Haurrek eskolan euskaraz ikasi arren, familiaren jokabidea eta etxeko hizkuntza oso garrantzitsuak dira hizkuntza transmititzeko.

Horregatik, Buruntzaldeko udalek eskuorri bat prestatu dute, familian, etxean, euskarari dagokionez zer egin, zer ez eta hizkuntzaren ezagutza eta erabilera hobetzeko gomendioak emateko.

Baina, noski, guraso guztiak euskararen ezagutzari dagokionez ez dira berdinak. Familia batzuetan, gurasoek

euskaraz badakite, beste batzuetan ez, eta azkenik, beste familia batzuetako gurasoetako batek badaki eta besteak ez.

Hori guztia kontuan hartuta, eskuorria ere hiru ataletan banatuta dago, atal bakoitzean familia-mota bakoitzeko gomendioak biltzeko.

Bestetik, Buruntzaldeko udalek euskara ikasi edo hobetu nahi duten gurasoentzako laguntza bereziak eskaintzen dituzte eta eskuorriaren atzeko aldean diru laguntza horien berri jaso da.

Usurbilgo kasuan, euskaltegiko matrikularen %80a udalaren dirulaguntza bidez jasotzeko aukera dago. Horretarako, udalak dirulaguntza-deialdia egiten duenean, epe barruan, eskaera egin behar da. Beharrezkoa da baldintza hauek betetzea:

- Usurbilen erroldatuta egotea.
- 12 urtetik beherako haurra edukitzea.
- Ikasturtean zehar %80ko asistentzia eta aprobetxamendu ona izatea.



DIPTIKO HONEN BIDEZ EMANGO DA KANPAINAREN BERRI.

Informazio gehiago:

Telefono zenbakiak: Udal Euskara Zerbitzua, 943 371999. Etumeta Euskaltegia, 943 372001.

euskara.usurbil@udal.gipuzkoa.net

## DIRULAGUNTZAK

"Usurbilgo kasuan, euskaltegiko matrikularen %80a udalaren dirulaguntza bidez jasotzeko aukera dago"

## Mus txapelketa ikusgarria sagardoaren lurraldean

**U**rtero bezala, iritsi da sagar berriaren uzta garaia gure inguruko baserrietara. Sagarrondoak gogor jo ondoren, sagarrak bildu eta lehenengo sagar zukuak ateratzeko garaia. Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartek harrera egin nahi dio sagar uzta berriari Sagardoaren Lurraldeko Lehen Mus Txapelketa antolatuz. Buruntzaldeko herri guztiak sagardo-

aren eta musaren inguruan biltzeko asmoz.

Hala, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta, Usurbil eta Andoaingo taberna desberdinetan jokatu da txapelketa eta hauetatik irabazle ateratzen direnen artean, finalerako ligaxka eta final handia Usurbilgo Saizar sagardotegian jokatu dira.

Gorde ezazu zure txokoa txapelketa

handirako irailaren 25a baino lehen, Ardibeltz garagardotegian edota Txiriboga tabernan.

Txapelketa urriaren 3an hasiko da eta final handia berriz azaroaren 11n jokatu da Saizarrenean.

**Sari nagusia, 3.000 euro**

Sari ikusgarriak ordagoaren zain dira. Bikote irabazleak 3.000 euro, txapela eta bazkaria jasoko du.

## ALIPROX

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL



## ITURGINTZA

## JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 830 072  
☎ 659 883 912